

**GORPUTZ-HEZKUNTZAKO  
IRAKASLEEN ETA LIZENTZIATUEN  
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
ELKARGO OFIZIALAREN  
JARDUNBIDE EGOKIEN ARAUDIA**



## **HITZAURREA**

**LEHEN TITULUA:** KONTZEPTUEN DEFINIZIOA ETA APLIKAZIO-EREMUA, 1., 2. eta 3. artikulua

**BIGARREN TITULUA:** BATERAEZINTASUNAK, 4. eta 5. artikulua

**HIRUGARREN TITULUA:** BETEBEHARRAK ETA EGINKIZUNAK

**LEHEN KAPITULUA:** ERABILTZAILEARI BURUZ, 6. artikulutik 11. artikulura

**BIGARREN KAPITULUA:** LANBIDEARI BURUZ 12. artikulutik 26. artikulura

**HIRUGARREN KAPITULUA:** KIROLEKO GORPUTZ-HEZITZAILEEN ELKARGOARI BURUZ, 27. artikulutik 30. artikulura

**LAUGARREN KAPITULUA:** ELKARGOKIDEAK LANA BETETZEN DUEN ENPRESARI EDO ORGANISMOARI BURUZ, 31. eta 32. artikulua

**BOSGARREN KAPITULUA:** GIZARTEARI BURUZ, 33. artikulutik 35. artikulura

**LAUGARREN TITULUA:** PUBLIZITATEA, 36. artikulutik 40. artikulura

**BOSGARREN TITULUA:** ORDAINSARIAK, 41. artikulutik 45. artikulura

**SEIGARREN TITULUA:** DIZIPLINA-KODEA. 46. artikulua

AZKEN XEDAPENAK



## HITZAURREA

Profesionalen elkargoei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legeak 5. artikuluan ezartzen duenez, profesionalen elkargoei dagokie, beren lurraldean, elkargokideen jardun profesionala antolatzeko funtzioak betetzea, lanbidearen etikaren eta duintasunaren nahiz partikularren eskubideak errespetatzearen alde jotzea eta profesionalen eta elkargoaren esparruan diziiplina babestea. 10.2.e) artikuluekin bat eginez, kode deontologikoen edukia argitaratu behar dute leihatila bakarraren bitartez, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak ahal bezain ondo babesteko.

Halaber, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeak 24. artikuluan jasotzen duenez, elkargokideek berek jo behar dute etika profesionalaren alde, herritarrak errespetatzearen alde eta elkargokideek lan-jardun egokia betetzearen alde. Horregatik, Euskal Herriko Gorputz Heziketako Irakasleen eta Lizentziatuen Elkargo Ofizialak, aurrerantzean, EUSKAL HERRIKO GHILEO, eskumena du bere arau deontologikoak eratzeko.

Arau guztiak bezala, arau deontologikoek argitasuna, zuzentasuna eta zorrotasuna behar dute, bai eta gizartearekin zein lan-jardunari eragiten dioten aldaketa politikoekin nahiz legegintzakoekin batera eguneratzeko aukera ere, kode hau eguneratzerako orduan.

Euskal Herriko Soin Iharduera eta Kirolaren Zientzietako unibertsitateko tituludunei agindutako jarduera profesionalen kode deontologikoak jokabide profesionalak arautzeko eta irizpideak ezartzeko xedea du, arauekin batera, Euskal Herriko Soin Iharduera eta Kirolaren Zientzietako Lizentziatuen Elkargo ospetsuak elkargokideen lan-jardun etikoaren alde jo dezan.

## LEHEN TITULUA: KONTZEPTUEN DEFINIZIOA ETA APLIKAZIO-EREMUA

### 1. artikulua.- EUSKAL HERRIKO GHILEOren kode deontologikoak



derrigorrez nork bere gain hartu beharreko printzipioen, betekizunen eta arauen multzoa



jasotzen du, eta haren azken xedea da elkargokideen jokabide profesionala bideratzea, lanbidearen duintasuna eta erabiltzaileen aurrean lanbidea betetzea bermatze aldera.

**2. artikulua-** EUSKAL HERRIKO GHILEOko elkargokideak kode hau bete behar du derrigorrez, eta kodearen esparrua Euskal Autonomia Erkidegoa da. Era berean, Estatuko beste profesionalen elkargo bateko elkargokideek arau hauek bete beharko dituzte derrigorrez, baldin eta lurralde honetan aritzen badira.

**3. artikulua-** EUSKAL HERRIKO GHILEOren kode deontologikoan honako kontzeptu hauek aplikatu behar dira: \_

**Deontologia:** betekizunei heltzen dien etikaren zatia, bereziki, lan-jarduera bat arautzen dutenei.

**Etika:** bizitzako edozein esparrutan pertsonaren jokabidea arautzen duten moralezko arauen multzoa.

**Lanbidea:** esperientzian eta ezagutza zientifiko-teknikoetan oinarritutako jarduera, indarrean dagoen araudiaren markoan unibertsitateko titulu akademikoak emandakoa, kontsumitzailearen edo erabiltzailearen konfiantzarekin arau deontologikoan oinarrituta egiten dena.

**Kirolaren profesionalak:** soin-jardueraren eta kirolaren zientzietako (SJKZ) ezagutza espezifikoak eta berezko teknikak aplikatuz, soin-jarduera eta kirola modu ziurrean, egokian eta osasuntsuan egiteko aukera ematen duten jarduerak.

**Zerbitzua:** edozer lan-jarduera edo -funtzio, normalean, ordainsari edo kontraprestazio baten truke egiten dena, boluntariotzari buruz indarrean dagoen legeriak xedatutakoari kalte egin gabe.

**Maileak:** zerbitzu bat eskaini edo egiten duen edozer pertsona fisiko, juridiko edo erakunde.

**Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak:** kode etiko honen ondoretarako, kontsumitzaile edo erabiltzaile izango dira lan-zerbitzuak eskatu edo



erabiltzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko guztiak, edo, bestela, beren



lan-jarduerarena ez den xede batekin aritzen direnak.

Lehia desleiala: objektiboki fede onaren eskakizunen aurkako jokabidea, bereziki, indarrean dagoen araudiaren hauste handia.

Intrusismoa: lan-ekintzak egitea horretarako baimena ematen duen titulu ofizialik edo akademikorik izan gabe.

## **BIGARREN TITULUA: BATERAEZINTASUNAK**

**4. artikulua.-** Profesionalak ezingo dizkio lan-zerbitzurik egin beste pertsona batzuei pertsona horien interesak profesionalaren interesen aurkakoak direnean.

**5. artikulua.-** Profesionalak edozer bateraezintasun edo interes-gatazkarik badu lanbidearekin, egoera horren berri eman beharko dio EUSKAL HERRIKO GHILEOri, elkargoan kategoriaz aldatzeko erabakia har dezan, edo, bestela, baimena eman dezan, interes-gatazkarik ez dagoela iritziz gero.

## **HIRUGARREN TITULUA: BETEBEHARRAK ETA EGINKIZUNAK**

### LEHEN KAPITULUA: ERABILTZAILEARI BURUZ

**6. artikulua.-** Elkargokideak kiroleko lan-zerbitzuak egin behar dizkie, derrigorrez, erabiltzaile denei, lan-bikaintasuna bilatzen duten kalitate- eta segurtasun- mailekin.

**7. artikulua.-** Eskatu beste alderdien inguruko informazioa eman beharko dio elkargokideak erabiltzaileari, zerbitzuaren prestazioari helduta.

**8. artikulua.-** Nortasuna, elkargokide-zenbakia, lanbidea eta profesionalaren kualifikazioa, sexu-deliturik ez egin izanaren ziurtagiria, erantzukizun zibilaren aseguru-poliza eta indarrean dagoen legeriak agindu beste informazio eman beharko dio elkargokideak erabiltzaileari. Zerbitzuen prestazioarekin lotutako agiri guztietan elkargokide-zenbakiarekin nork bere burua identifikatzea komeni da.

**9. artikulua.-** Elkargokideak sekretu profesionala gorde beharko du erabiltzaileak eman dizkion informazio eta datuei dagokienez, zehazki, osasun-datuekin, datu biomediko, psikologikoekin, sozialekin eta bestelakoekin, profesionalak esku hartzeko prozesuan edo haren ondorioz garrantzitsuak



direnekin, lotuta.





Era berean, eman zaion informazio guztia erregistratu beharko du profesionalak, eta hura babestu beharko du indarrean dagoen datuak babesteko legeria betetze aldera.

**10. artikulua.-** Jardueratik eratorritako arrisku guztien berri eman beharko dio elkargokideak erabiltzaileari, bai eta horiek saihesteko ezarrien berri ere.

**11. artikulua.-** Kontratua eskuragarri jarri beharko dio elkargokideak erabiltzaileari, eta bertan adierazi beharko dira ordainsariak kontzeptuen, kontratatutako zerbitzuen zehaztasun teknikoen eta itundutako zerbitzuei aurreikusitako emaitzen arabera.

## BIGARREN KAPITULUA: LANBIDEARI BURUA

**12. artikulua.-** Lanbidea betetzeko beharrezkoak diren baldintzak bete beharko ditu elkargokideak.

**13. artikulua.-** Jarduera fisikoa eta kirola egitean emakumearen benetako berdintasunari laguntzen dioten baldintzak sustatu beharko ditu elkargokideak, eta edozer izaerako diskriminazio ekintzak saihestu beharko ditu.

**14. artikulua.-** Elkargokideak lan-jarduera egin beharko du zerbitzuen hartzaileak babestuz, bereziki, adingabeak.

**15. artikulua.-** Elkargokideek beren arteko harremanetan, errespetuz, leialtasunez eta bata bestearenganako begirunez jokatu beharko dute, bata besteari etengabe laguntzeko eta elkarlanean aritzeko jarrera gure nortasunaren bereizgarria izango baita.

**16. artikulua.-** Elkargokideen behar deontologikoa da EUSKAL HERRIKO GHILEOri objektiboki eta egiaz komunikatzea beste elkargokide batzuk lan-jardunbide desegokiko ekintzak egin dituztela, intrusismoa egin dutela edo kode etiko hau hautsi dutela. Elkargoak ezin du esan nor salatu dituen egintzak, pertsona horren baimena izan gabe.

**17. artikulua.-** EUSKAL HERRIKO GHILEO bitartekaritza-lana egin ahalko du elkargokideen artean sortzen diren lan-gatazka guztietan, bai eta hirugarrenekin gertatzen direnetan. Horretarako, izen oneko elkargokide bat



hautatuko du



Elkargoko zuzendaritza-batzarrak.

**18. artikulua.-** Elkargokideak indarrean dauden arau etiko eta deontologikoak onartu beharko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko esparrutik kanpo aritzen denean. Toki jakin batean arau deontologikorik ez badago, hauek bete beharko ditu.

**19. artikulua.-** Elkargokideak lanbidea eta profesionalak babestu beharko ditu, tartean sartu edo eraso profesionalak egin dituen kanpoko eragilea edozein izanik, eta kasu horietan Elkargoaren arauari eta bideei heldu beharko die, beti indarrean dagoen legeriaren barruan.

**20. artikulua.-** Elkargokideak ez du aplikaziozko araudiaren barruan tituludunak ez diren pertsonak eginiko lan-jardunaren abalik emango bere titulazioarekin.

**21. artikulua.-** Elkargokideak bere gain hartzen du beste profesional batzuekin lankidetzan aritzeko konpromisoa, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen alde jotze aldera, lan-jardunaren barruko printzipio gisa.

**22. artikulua.-** Elkargokideak errespetuz eta begirunez tratatuko ditu gainerako profesionalak, lanbidea betetzean.

**23. artikulua.-** Elkargokideak hari dagozkion funtzioak edo eginkizunak –denak edo batzuk– eskuordetu, agindu edo horiek betetzeko ordezkorik bilatu dezake bakarrik elkargokideen artean eta horiek betetzeko gaitzen duen titulua dutenen artean.

**24. artikulua.-** Elkargokideak, eztabaida zientifikoaz haratago, ezin du beste profesional tituludun batzuen lana kritikatu, izen ona kendu edo gutxietsi, zehazki, jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotura duten edo osagarriak diren lan-tresnei, -metodoei, -sistemei eta abarri dagokienez.

**25. artikulua.-** Taldeko kide bakoitzaren lan-eskumenak errespetatu beharko ditu elkargokideak, baina ez du onartuko haietako inork bere erantzukizunetan eta lan- funtzioetan sartzea edo horiek oztopatzea.

**26. artikulua.-** Elkargokideak, lana betetzeko, lankidetzan eta harremanetan egon beharko da osasun-arloko profesionalekin, eta haien esku ere bai, bereziki,



erabiltzaileari diagnostikoa egin eta ariketa fisikoa agindu dionarekin, hura gainbegirale izanik, erabiltzailearen osasun-egoera zaindu, mantendu, aldatu edo



egokitzeko xedez.

## HIRUGARREN KAPITULUA: KIROLEKO HEZITZAILE FISIKOEN ELKARGOARI BURUZ

**27. artikulua.-** EUSKAL HERRIKO GHILEOK federakundearen antolakuntzaren, gobernamendu-erakundeen, funtzioen eta haren kideen berri eman beharko die elkargokide guztiei. Elkargokideak derrigorrez bete beharko ditu estatutuetako arauak, kode deontologiko hau eta EUSKAL HERRIKO GHILEOren eskumeneko organoek egiten dituzten akordioak edo ebazpenak, betiere xedatutako bideetatik eta bide ofizialetatik jakinarazi edo argitaratu badira.

**28. artikulua.-** Elkargokideak berehala jakinarazi behar dio EUSKAL HERRIKO GHILEOri lanbidea betetzearekin lotutako datuen edozein aldaketa (lan-helbidea, lan-kategoria aldatzea edo bestelako datu garrantzitsuak).

**29. artikulua.-** Elkargokide batek autonomia-gabeziaren aztarnarik edo independentzia gabezia nahiz o lan-jarduera betetzeko ezintasun osoa edo partziala antzematen badu –edozer kausagatik– (osasun-egoera, gaixotasuna edo beste batzuk), berehala jakinarazi beharko dio erabiltzaileari eta EUSKAL HERRIKO GHILEOri.

**30. artikulua.-** Elkargokideak Elkargoko diziplina-organoak errespetatu eta horiek agindutakoak bete eta betearazi beharko ditu. Gainera, lan-gaiak direla medio, bitartekaritza eratorri direnak errespetatu beharko ditu, elkargokidea borondatez haren eraginpean egongo da eta.

## LAUGARREN KAPITULUA: ELKARGOKIDEAK LANA BETETZEN DUEN ENPRESARI EDO ORGANISMOARI BURUZ

**31. artikulua.-** Elkargokideak, lana betetzean, enpresaren edo lan egiten duen organismoaren xedea, ikuspegia, balioak, printzipio ideologikoak, erregelamenduak, araudiak, zirkularrak eta agiri zein datu garrantzitsuak ezagutu eta errespetatu beharko ditu, ondorengo artikuluan xedatutakoari dagokionez izan ezik.



**32. artikulua.-** Elkargokideak, lege-betekizunez gain, EUSKAL HERRIKO GHILEOri jakinaraziko dizkio lan egiten duen enpresak edo organismoak eginiko irregulartasunak, baldin eta profesionalari, lanbideari edo erabiltzaileari kalte egiten badie kode honetan deskribatutakoaren arabera.

### BOSGARREN KAPITULUA: GIZARTEARI BURUZ

**33. artikulua-** Elkargokideak kiroleko zerbitzu profesional tituludun eta kualifikatuen gizarte-kultura suspertu beharko du, modu aktiboan eraginez pertsonen segurtasunari, osasunari eta osotasunari.

**34. artikulua.-** Kiroleko jarduera fisikoari eta ariketa fisikoari helduta, antzemandako arazoan, ahulezian, mehatxuen edo antzekoen berri eman behar du elkargokideak, adibidez, sedentarismoaren, dopinaren eta kirol-probetan iruzur egitearen berri.

**35. artikulua.-** Elkargokideak bere gain hartzen du zerbitzuak jasangarritasunaren printzipioa eta ingurumena errespetatuz egiteko konpromisoa.

### **LAUGARREN TITULUA: PUBLIZITATEA**

**36. artikulua.-** Zerbitzuak eskaintzen dituen elkargokideak nortasuna zehaztu beharko du lana betetzeko gai bihurtzen dion tituluarekin eta elkargokide-zenbakiarekin batera.

**37. artikulua.-** Deontologia profesionalaren urraketa izango da sekretu profesionalak babestutako egitateak, datuak edo informazioak zuzenean edo zeharka argitaratzea edo kontatzea.

**38. artikulua.-** Elkargokideka EUSKAL HERRIKO GHILEOri jakinarazi beharko dizkio komunikabideek edozer bidetik hedatutako informazioak edo argitalpenak, umiliagarriak, subjektiboak, maneiatuak, ez zehatzak eta abar izan daitezkeenak; beti kirolaren jarduera fisikoarekin eta ariketa fisikoarekin lotuta.

**39. artikulua.-** Elkargokideak ez du inoiz erabiliko elkargoko ikur edo sinbolorik edo horien antzekoak izateagatik nahasmena eragin ditzaketenik, EUSKAL HERRIKO GHILEOren berariazko baimena izan gabe.



**40. artikulua.-** Elkargokideak ezingo du ikus-entzunezko edo idatzizko baliabiderik edo adierazpenik erabili, baldin eta EUSKAL HERRIKO GHILEOren izen ona edo lanbidea, kiroleko jarduera fisikoa edo aurrez aipatutako edozer sinbolo kaltetu, iraindu edo gutxiesten badu. \_

## **BOSGARREN TITULUA: ORDAINSARIAK**

**41. artikulua.-** Elkargokideak ordainsaria jasotzeko eskubidea eta beharra du, lan-jardunaren truke. Bestalde, sortu dituen gastuen ordainketa jaso behar du ere bai.

**42. artikulua.-** Elkargokideak honako irizpideen arabera finkatu beharko ditu bere ordainsariak:

a) lan-zerbitzuen balorazioa

b) lehia desleialik ez egitea.

**43. artikulua-** Elkargokideak erabiltzaileari jakinarazi beharko dio lan-ordainsarien zenbatekoa, eta aditzera emango dio erabiltzaile denek dutela kontratu bat egiteko eskubidea. Kontratu horretan, aurrekontua agertu beharko da eta honako hauek zehaztuko ditu: kontzeptuak, kontratutako zerbitzuen zehaztapen teknikoak, itundutako zerbitzuetan aurreikusitako emaitzak profesionalaren betekizunak eta kontsumitzaileen nahiz erabiltzaileen eskubide orokorrak.

**44. artikulua.-** Elkargokideak lan-zerbitzuak egin beharko ditu boluntariotzaren markoan, betiere indarrean dagoen legeriak agindutako eta kode honetan xedatutako baldintzei helduta.

**45. artikulua.-** EUSKAL HERRIKO GHILEOK aukera izango du ordainsarien baremoak ezartzeko, eta horiek orientagarriak baino ez dira izango.

## **SEIGARREN TITULUA. - DIZIPLINA-KODEA**

**46. artikulua.-** Kode honetan jasotako edozer xedapen hausten badute elkargokideek, diziiplina-prozedura irekiko zaie, indarrean dauden Estatutuen



zazpigarren tituluko III. kapituluari jasotako eta araututa dagoena.





## **XEDAPEN OSAGARRIA**

Lan-jardueretan kontsumitzaileak edo erabiltzaileak, ikasleak edo kirolariak adingabeak badira, European Physical Education Association elkartearen Gorputz Hezkuntzako Kode Etikoaren eta Jardunbide Egokien xedapen guztiak aplikatuko dira, kode honen osagarri gisa.

## **AZKEN XEDAPENAK**

Kode deontologiko hau indarrean sartuko da Batzar Nagusiak onartzen duen hurrengo egunean.

Arau deontologikoak indarrean dagoen legeriarekin, eta, bestela, Estatuko araudiarekin, bateragarriak izatearen baldintzapean egongo dira, Euskal Herriko kirolaren esparruko profesionalen antolakuntzarekin lotuta.